

Biharamuneko pilula



Iparraldeko farmazietan sendagilearen errezetarik gabe eskura daiteke biharamuneko pilula

Bezperan eginiko —edo egin gabeko— gauza askotaz damutu ohi gara biharamunean. Haietako asko eguna aurrera joan ahala ahaztu egiten zaizkigu, joan egiten dira. Baina badira, erremediorik jarri ezean, arazo bihur daitezkeen ekintzak: antisorgailurik erabili gabe —edota neurriak hartu bai baina huts egiten dutenean— izan ditugun sexu harremanak adibidez. Izan ere, nahigabe, haurdun gera daiteke emakumea. Arazo horrek, ordea, badu konponbiderik: biharamuneko pilula, hain zuzen. Pilula horrek ez du uzten haurdunaldia gertatzen, hau da, obulu eta espermatozoidearen arteko elkarketari ez dio uzten umetokian itsasten. Izenak esaten duen bezala, pilula horrek eragina izan dezan, sexu harremanak eduki ondorengo orduetan hartu behar da. Euskal Herrian ez dago biharamuneko pilula eskuratzeko arazorik: Iparraldeko edozein farmaziatan saltzen dute; errezetarik erakutsi gabe. Hegoaldean, berriz, errezeta erakutsi behar da. Hori bai, farmaziak ez daude pilula hori saltzera behartuak; farmazia bakoitzaren esku dago saldu edo ez.